



Eraso arrazista baten berri eman digu [SOS Arrazakeriak](#) berriki. Abdellah eta Abderrazzak herritarrak gabongauan Bilboko taberna batean sartzekoan jasotako eragozpenak eta erasoak salatu nahi izan du egunotan eskubideen aldeko elkarteak. Martxoan "onartze eskubidearen" inguruan [testing-a](#) egin zutenean eskatu bezala, berriro adierazi dute jokamolde hauek oso ohikoak direla Bizkai osoko ostalarien artean. Eskubideen aldeko kideek, polizi desberdinek diskriminazio salaketak jasotzeko protokolorik ez dutela eta normalean biktimak arreta gutxi sentitzen duela nabarmendu dute. Baina iregulartasunak aratago doaz: askotan ez dira atestatuak egiten edo ez dira behar diren zehaztasunak jasotzen, askotan ez dute epaitegiei eta kontsumo arduradunei salaketa luzatzen, normalean salatuaren adierazpena ontzat ematen du eta biktimak ez du fiskalaren babesa jasotzen. Horregatik SOS Arrazakeriak oso beharrezkotzat jotzen du Katalunian bezala, diskriminazio delituetan espezializatutako fiskal bat izendatzea.